

Utopikook



ZIGOR ETXEBURUA
URBIZU
EUSKALTZALEA

Monzonek esana da, "utopikoak egiten diote munduari aurrerarazi". Azken aldian, ordea, euskal politikagintzan boladan jarri da *pragmatismo* kontzeptua. Gizapedia-ren arabera, pragmatismoa da gizarteak dituen arazoei irtenbide praktikoak proposatzen dizkien filosofia aktiboa. Horretarako, bitarteko egoki eta erosoak baliatzen ditu, horietarako oztopo izan daitezkeen alde aurretiko ideiak eta printzipioak baztertuta, idealismotik ihesi. Joera horri eusten dioten politikariek emaitzei erreparatzen diete, ez hainbeste beren ideologiak agintzen duenari. Hain zuzen, aipatutako azken ezaugarri horrek eraginda edo, ezkerreko joera politikoetan ohikoa izan da bide horrek eztabaidak eragitea.

Definizioari erreparatuta, uste dut begi bistakoa dela agintea eta ardurak dituen politikariaren egitekoa dela gizarteak dituen arazoei irtenbide praktikoak ematea. Beste kontu bat da irtenbide horiek benetan irtenbideak izatea, ezpada enbarazu handiegirik eragingo ez duten ekimen "erosoak" direla. EAEko politikan oso ohikoa izan da egin beharra izan arren, ez egin nahi izatea, eta hori saihesteko, "ametsa doitzea" eta erdipurdiko emaitzak izaten dituzten ekimenak garatzea egiturazko arazo ga-

rrantzitsuen aurrean, helburuak erdiestekeo epemugarik, ganorazko ebaluaziorik eta parte-hartze eraginkorrik gabe. Hain zuzen ere, eredu hori praktikatu dutenek pragmatismoa aldarrikatu izan dute zuribide gisa, Groucho Marxismoari jarraiki ("...baditut beste printzipio batzuk"); udalbatzan kide izan nuen EAJko zinegotzi batek ere bere pragmatikotasuna aipatu zidan, justu, bere mendeko ataletan, euskarazko arretan eta zerbitzuetan, atzera urrats eta urraketa nabariak gertatzen ari zirelarik.

Argi dago badagokiola idealismoari zehaztea nola lortu nahi dituen aldarrikatzen dituen helburuak. Beti egin behar izaten dira urratsak (praktika) helburu (ideologia) jakin batera iritsi nahian, izan gehiago ala gutxiago, zailagoak edo erosoagoak, baina ustez kolpetik gertatzen diren iraultzetan ere, eraldaketa soziala ez baita goiz bateko kontua. Iparririk gabeko jarduna, ordea, akigarria da, eta eraginkortasun gutxiagoa. Nik Galeanoren poesia maite dut: "(Utopia) zerumugan dago. Bi urrats gerturatzen naiz, eta bera bi urrats urruntzen da; hamar urrats egiten ditut, eta ortzimuga hamar urrats harago aldentzen da. Luze ibilita ere, ez naiz iritsiko. Orduan zertarako balio du utopiak? Horretarako, ibiltzeko balio du". ●

Open Bar



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Ikusi ditugu alimaleko traktoredun nekazariak, bideak, zubiak, mugak blokeatzen, eta bihotzak "krak!" egin zigun elkartasunez, geu ere laborari haurrak garelako eta anaiak, oraino, etxaldeak aitzina eramaten tematzen direlako. Manifestariak entzun ditugu normak kritikatzeko, bioxidoen erabilpena aldarrikatzeko... *open bar* nahi dute eta bost axola zaie ingurumena eta jendeen osasuna kaltetzea. Bistan dena, Frantziako FNSEAko "nekazariez" ari naiz, besteak mugimendu horren ezpondetan begira gelditu direlako -eta beharrik, bestela

esperantza galduko genuen arras-.

Gosearen xantaia egiten digute desgertzera uzten baldin baditugu. Elikatzen gaituztela sinesten dute, baina "nekazari" horiek ekoizten dutenaren parterik handiena Europako hesietatik kanpo esportatzen da, zerealak, esnea, oilaskoak... eta petzerotzat daukaten laborantza txikiagoak, organikoak edota iraunkorrak, gaitu egiazki hazten.

Puntu batean arrazoi dute: hiritar "bobo-ekolo" hauek jakin behar dugu nori zer erosi. Uste dut askok jadanik hautua egina dugula... ●